

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 60/2020 FORU DEKRETUA, ekainaren 23koa, «Esta historia la escribes tú/jarraitzeko prest? Orain zure txanda da» leloa duen Bizkaldatz-2020 XII. literatura-sariaren oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dituen.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren helburuetako bat da literatura arloa eta, zehazki, arlo horretako sormen artistikoa bultzatzen laguntzen duten kultur ekimenak sustatzea. Horrekin lortu nahi da arlo hori garatzea eta sendotzea gure lurralde historikoan.

Babes hori benetan emateko, abian ditu hainbat jarduera ildo, horien artean nabarmentzen denetako bat izanik Bizkaldatz literatur saria, «Esta Historia la escribes tú/Jarraitzeko prest? Orain zure txanda da» lelopean. Ekimen horrek, aurreko edizioetan finkatutakoak, helburu nagusitzat du bizkaitarren talentua eta sormen literarioa bultzatzea, indartzea eta sustatzea, eta, ondoren, horien zabalkundea egitea.

Proposatzen den xedapen orokor honen xede den gaiaren gaineko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, Euskal Autonomi Erkidego Osorako Erakundeek eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeek arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7. artikuluan xedatutakoarekin bat; izan ere, xedapen horren arabera, lurralde historikoetako foru erakundeei eskumen eskusiboa dagokie, besteak beste, arlo hauetan: lurralde historikoaren titulartasunekoak diren eta arte ederrekin eta artisautzarekin zerikusia duten artxibo, biblioteca, museo eta erakundeek arloan.

Zehazki, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuak, zeinak Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duen, sail horri eskumen hau esleitzen dio: Bizkaian kultura sustatu eta zabaltzea, gure kulturaren ezagutza eta garapenetik abiatuta eta beste kultura guztiei atea zabalduz.

Honako deialdi honek, ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak emakumeen eta gizonen berdintasunaren oinarriaren arabera herri administrazioei dagozkien obligazioekin bat, eta beti ere genero ikuspegia aintzat hartuta, obra literarioek gure gizartean duten garrantzia eta eraginak hartu ditu kontuan, hain zuzen ere balore eta rol sozialetan sentiberatzeko eta horiek transmititzeko bitartekoak direlako; horretarako beharrezko moduan ezarri da lehiaketa honetara aurkeztuko diren kontaketeak derrigorrez bete behar dituztela sexuen berdintasuna eta genero ikuspegia, horrela emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde egingo duen literatura bat eta, azken finean, kultura bat sustatuz.

Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 4. xedapen gehigarriak ezarritakoarekin bat etorritik, hezkuntza, kultura, zientzia edo beste edozein motatako sarien esleipenari ezar dakiokkeen araubide berezia ezarriko zaio, foru arau horren edukiaren arabera izan beharko dena, salbu eta, diru-laguntzen izaera berezia dela eta, horrelakorik ezin ezar dakiokkeen alderdietan.

Foru Dekretu honek erregulazio onaren printzipioak betetzen ditu. Printzipio horiek jasota daude Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Foru Dekretu horretan xedatutakoa kontuan hartuta, hura prestatzeko orduan, txosten hauek idatzi dira:

1. Sail sustatzailearen txosten juridikoa.
2. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.



3. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
4. Legezketasunari buruzko txostena.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailtako gaiei buruzko Foru Dekretuen proiektuak onar ditzan. Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari diru-laguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko. Eta Diru-laguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari dagokiola onartzea, egintza bakarrean.

Hori dela bide, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak 2020ko ekainaren 23ko bileran aztertutik, honako hau,

XEDATZEN DUT:

Artikulu Bakarra. — *Literatura-sariaren oinarriak eta deialdi publikoa onestea*

Bizkaitarren literatura-sorkuntza sustatu, eta bultzatzeko, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailak sortutako literatura-sariaren oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira. Ondoren jasotzen da oinarrien eta deialdiaren testua.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. oinarria. — *Literatura-lehiaketaren xedea*

1. Lehiaketa honetan, gaur egungo idazle batek hasitako kontakizun bati jarraipena ematen dioten literatura-kontakizunak aurkeztu ahal izango dira; beraz, hasiera horretara, haren pertsonailetara eta egoeretara egokitu behar dira kontakizunak.

Berariaz eratuko den epaimahai batek aztertuko ditu sarira aurkeztutako lanak eta proposatuko du zeintzuk diren irabazleak; sari ekonomiko bat eta/edo diploma bat eman-go zaie irabazleoi.

2. Aurtengo deialdian, parte-hartzaileek kontakizun hauen hasierak hartu beharko dituzte abiaburutzat:

- a) Euskarazko atalean, Idoia Barrondo Etxebeste idazlearen «IKIGAI» kontakizunaren hasiera.
- b) Gaztelaniazko atalean, Juan Infante Escudero idazlearen «El misterio del testamento ológrafo» kontakizunaren hasiera.

3. Parte-hartzaile bakoitzak nahi duen beste lan aurkez dezake.

Parte hartzen duten pertsonak euskarazko edo gaztelaniazko kontakizunak aurkez ditzakete, eta, epaimahaiak horrela erabakitzen badu, atal bietan izan daitezke irabazle. Euskarazko kontakizunaren hasiera aukeratuz gero, kontakizunak euskaraz jarraitu behar izango du; gaztelaniazkoa aukeratuz gero, berriz, gaztelaniaz.

4. Narrazioek, gutxienez, 12 orrialdeko luzera izan beharko dute, eta, gehienez, 15 orrialdekoa. «Times» edo «Arial» letra erabili beharko da, DIN44 tamainako orrietan idatzita. Eta honako ezaugarri hauek gorde behar dituzte: gorputza, 12; espazioa, bikoitza; gutxienez 24 lerro eta gehienez 32 lerro orrialde bakoitzean, eta lerro bakoitzean, gutxienez, 70 karaktere, salbu eta ortografiatzeko zeinu jakin batzuen aplikazioaren emaitzako salbuespenak.

5. Lehiaketa honetara aurkeztuko diren kontakitek derrigorrez bete behar dute ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak eta indarrean dauden gainerako legezko xedapenek ezarritakoaren arabera emakumeen eta gizonen berdintasuna.

**2. oinarria. — *Pertsona onuradunak***

1. Hamasei urtetik gorako pertsona fisikoak aurkeztu ahal izango dira literatura-lehiaketa honetara; aurkezten dituzten lanek originalak izan behar dute eta ezin dira aurretik argitaratutakoak izan, ez zati batean, ez osorik; gainera, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren (Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautu du foru arau horrek) 12. artikuluan ezarritakoa bete behar dute. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean 16 urte beteta eduki behar izango dute.

2. Gainera, gaztelaniazko atalean parte hartzen duten pertsona egileek baldintza hauetako bat bete beharko dute, gutxienez, Bizkaiko Lurralde Historikoan jaioak izatea edo, bestela, Bizkaiko Lurralde Historikoan errolatuta egotea Foru Dekretu hau argitaratzen denean edo Foru Dekretu hau argitaratu aurretik urtebetez gutxienez Bizkaiko Lurralde Historikoan errolatuta egon izana.

3. Aurreko bi edizioetan, edozeinetan, lehen edo bigarren saria irabazi duten pertsonak saririk jaso ez zuten modalitatean bakarrik parte har dezakete aurtengo deialdian (euskaraz edo gaztelaniaz), 2020ko XII. Bizkaldatz sarian.

4. Sexua dela-eta inor baztertzearatik administrazio-zehapenik edo zehapen penalik jaso duten pertsonak ezin izango dute dekretu honetan araututako deialdian parte hartu, dagokien zehapena indarrean dagoen bitartean; halaber, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua dela-eta debeku hori ezarri zaienak ere dekretu honek arautzen duen deialditik kanpo geldituko dira.

II. TITULUA**ARAU BIDE JURIDIKOA****3. oinarria. — *Ezarri beharreko arautegia***

Foru Dekretu honetan aurreikusi gabeko gaietarako aplikagarriak izango dira Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzei buruzko Araudia, bai eta, osagarri gisa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean eta bere izaeraren zioz aplikagarri izan daitekeen beste edozein xedapen arauemaile ere.

4. oinarria. — *Arau-hausteak eta zehapenak*

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzei buruzko lege araubide orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. Tituluan eta foru arau hori garatzen duen Erregelamenduaren IV. Tituluan ezarritakoa ezarriko da.

III. TITULUA**PROZEDURA****5. oinarria. — *Eskabideak aurkezteko tokia eta epea***

1. Eskabideak eskuz edo postaz aurkeztu ahal izango dira, Laguntza Erregistroa eta Herritarrenganako Laguntza Bideratzeko Bulegoan (Diputazio kalea, 7., 48008-Bilbo) edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako eran.

Horrez gainera, aukera egongo da eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoen bidez aurkezteko.

Adingabeen eskabideak haien guraso-ahala edo legezko ordezkariak duten pertsonak aurkeztu beharko dituzte. Sariren bat irabazten badute, pertsona horiek izango dira jasoko den zenbateko ekonomikoaren onuradunak, ondorio guztietarako, eta ez adingabeak. Edonola ere, adingabeak bete beharko ditu 2. oinarrian onuradunentzat ezarritako baldintzak.



Adingabeak sariaren onuradun izango dira baldin eta adin-nagusitasuna lortzen badute sariaren ordainketa izapidetu aurretik. Hala gertatzen denean ordainketa izapidetzeko, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ordainduta dauzkala egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

2. Eskabideak aurkezteko epea Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta 2020ko irailaren 17ra artekoa izango da, egun bi horiek barne.

6. oinarria. — *Eskabideekin batera aurkeztu beharreko agiriak*

1. Eskabideak Foru Dekretu honen I. inprimaki gisa erantsitako eredu ofizialean aurkeztu ahal izango dira (BI-1 eredua), hurrengo zenbakietan adierazitako agiriekin eta eskatzaileak edo haren legezko ordezkariak izenpetuta (<http://www.bizkaia.eus/kultura-dirulaguntzak> web orrian eskuragarri dago inprimakia).

2. Eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoren bidez aurkezteko, egoitza horretan (<http://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>) bete eta aurkezteko dauden eredu espezifikak erabili behar dira.

3. Kasu bietan, eskabidearekin batera, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Parte-hartzaileek idatzitako kontakizunaren lau kopia, lana aurrez aurre aurkeztuz gero. Eskabideak egoitza elektronikoren bidez aurkeztzen badira, kopia bakarra eranstea nahikoa izango da.

Obraren aleak ez dira sinatu behar; zenbakia jarrita izango dute orrialde guztietan, eta kontakizunaren izenburua adierazita izan behar dute; ez, ordea, egilearen identifikazio-daturik.

b) Eskatzailearen NANaren kopia eta, adingabea bada, haren legezko ordezkariaren NANaren kopia, eta legezko ordezkariak hori egiaztatzen duen dokumentazioa.

c) Gaztelaniazko modalitatera aurkeztu direnen artean Bizkaian jaioak ez direnek ziurtagiri bat aurkeztu behar dute, egiaztatzeko Foru Dekretu hau argitaratzen den unean Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerri batean erroldatuta daudela edo urtebetez erroldatuta egon direla Foru Dekretu hau argitaratu aurretik.

d) Banku-helbideratzearen fitxa, behar bezala beteta, alta edo aldaketaren bat egon bada, bakarrik.

e) Zerga-egoitza duten lurraldean, zerga betebeharrak egunean beteta dauzkatala egiaztatzeko agiriak, eskatzaileak Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo erroldatuta badaude.

4. Bizkaiko Foru Aldundiak egiaztatu egingo ditu eskabidea sinatzen duen pertsonaren identifikazio-datuak.

Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiak eskatzailearen banku-kontuaren titulartasun-datuak kontsulatuko ditu, betiere eskatzaileak aukera horren kontra agertzen ez bada.

Datu horiek eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin bat, bai eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin ere.

5. Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Foru Sailak Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatuta dauden Ogasunaren egiaztariak eskatuko ditu, eta eskatzaile guztien Gizarte Segurantzarenak, Diru-laguntzei buruzko 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 21.3 artikuluan ezarritako ondorioetarako, salbu eta interesdunak horren kontra dagoela adierazi badu, hori guztia 39/2015 Legearen 28.2 artikuluen babesean.

**7. oinarria. — Eskabideak zuzentzea edo hobetzea**

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo Foru Dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat ez badute, orduan agindeia egingo zaio eskatzaileari, hamar (10) egun balioduneko epean akatsa zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan, eta ohartaraziko zaio horrela egin ezean eskabidean atzera egindakotzat joko dela eta, behin ebazpena emanda, eskabidea artxibatu egingo dela.

2. Edonola ere, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailak aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango die interesdunei.

8. oinarria. — Emateko prozedura

Sariak norgehiagoka sistemaren bidez emango dira, hau da, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da eta aurkeztutako kontakizunak alderatuko ditu, 9. oinarrian ezarritako ebaluazio-irizpideak kontuan hartuta, eskabideen arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko.

9. oinarria. — Kontakizunak baloratzeko irizpideak

1. Deialdi honetarako izendatuko den epaimahai kalifikatzaileak bakarrik aztertuko ditu epearen barruan aurkeztutako eskabideak, eta beraren iritziz puntu gehien lortu dituztenei emango dizkie sariak. Gehienez ere 10 puntu lortu ahal izango dira, eta puntuok erabakitze irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a) Proposatutako kontakizunari emandako jarraipena eta harekiko batasuna: 4 puntu, gehienez.
- b) Kalitate literarioa: 3 puntu, gehienez.
- c) Istorioaren garapenean izandako sormena: 3 puntu, gehienez.

2. Saria eman gabe geratu ahal izango da, baldin eta, epaimahaiaren iritziz, aurkeztutako kontakizunak ez badituzte betetzen sarituak izateko ezarritako baldintzak, edo balorazioan ez bada puntuazio nahikorik eskuratu.

3. Epaimahai kalifikatzaileak ahalmena du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna zaintzen ez duten kontakizunak kanpoan uzteko eta baztertzeko, otsailaren 18ko 4/2005 Euskal Legeak, ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak eta indarrean dauden gainerako legezko xedapenek ezarritakoarekin bat.

10. oinarria. — Aholkularitza

Foru Dekretu hau dela-eta sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko beharrezkoa den laguntza tekniko edo aholkularitza eskainiko ditu Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuak. Horretarako interesdunen eskura dago <http://www.bizkaia.eus/laguntzaileOndarea> web orrian.

11. oinarria. — Epaimahai kalifikatzailea

1. Aurkeztutako kontakizunak aztertu eta ebaluatzeko, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da. Epaimahaikideak Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuak izendatuko ditu, foru agindu bidez. Izendapen hori egiteko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44 artikuluan ezarritakoa beteko da.

2. Epaimahai kalifikatzaileak, sariak emateko irizpideak kontuan hartuta, ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari, behin betiko ebazpena eman dezan.

12. oinarria. — Ebazpena

1. Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 22.4 artikuluan xedatutakoa betez, deialdi honetan, interesdunei ez zaie, lehenbizi behin-behineko ebazpen-proposamena eman, eta, gero, entzunaldiaren izapidea eskainiko, zeren interesdunek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak besterik ez baitira jaso eta kontuan hartuko prozeduran.



2. Deialdia ebatzi aurretik, Kultura Ondarearen Zerbitzuak egiaztatuko du ea eskatzaileek egunean dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Halaber, egiaztatuko du ez direla zordun dirulaguntza itzuli behar dutela-eta. Eskatzaileren batek betebeharrak horietako bat edo batzuk betetzen ez baitu, deitu egingo zaio 10 eguneko epean egoera konpon dezan, bai eta ohartarazi ere, horrela egin ezean eskaeran atzera egindakotzat joko dela.

3. Ebazpena emateko eta jakinarazteko gehienez ere 3 hilabeteko epea dago, kontakizunak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta. Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuak emango du ebazpena, Epaimahai Kalifikatzaileak proposamena eginda.

Epe hori eskabideari buruzko ebazpen adierazirik eman gabe igarotzen bada, eskabidea ezetsizat joko da; hala ere, ebazpen adierazia geroago ere eman ahal izango da.

4. Deialdi hau ebazteko ematen den foru agindua posta ziurtatu bidez jakinaraziko zaie deialdi honetarako eskabidea aurkeztu duten pertsonari, salbu eskabidea Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu dutenei, egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez jakinaraziko baitzaie.

Ebazpenean, berariaz azalduko da foru agindu horrek administrazio-bidea amaitzen duela eta haren aurka berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal diola interesdunak Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari, foru agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete (1) pasatu baino lehen, edo, bestela, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakeela, era berean zenbatutako bi (2) hilabeteko epea pasatu baino lehen.

5. Saridunen zerrenda Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, iragarki baten bidez.

13. oinarria. — Sariak

Irabazleei sari hauek banatuko zaizkie:

- Lehenengo saria, euskaraz: 1.500 euro eta diploma.
- Lehenengo saria, gaztelaniaz: 1.500 euro eta diploma.
- Bigarren saria, euskaraz: 500 euro eta diploma.
- Bigarren saria, gaztelaniaz: 500 euro eta diploma.
- Finalista-saria, euskaraz: diploma.
- Finalista-saria, gaztelaniaz: diploma.

Aurreko atalean agertzen diren sari ekonomikoei atxikipen fiskalak egingo zaizkie, legeak ezartzen duenarekin bat.

Saria jaso duten kontakizunak edizio berezi batean argitaratuko dira.

IV. TITULUA

SARIAREN KUDEAKETA

14. oinarria. — Sariaren ordainketa

1. Saria eman zaiola adierazten duen jakinarazpena jaso eta ondorengo hamar egun balioduneko epearen barruan saridunak ez badio espresuki eta idatziz uko egiten sariari, ulertuko da onartu egin duela.

Saria eman zaiola jakinarazi ondoren 10 egun baliodun igaro eta berehala, Kultura Ondarearen Zerbitzuak haren ordainketa izapidetuko du Ogasun eta Finantzen Foru Sailean, eta saridunei ez zaie horretarako inolako bermerik eskatuko horretarako.

2. Saria aintzatestu eta ordaindu baino lehen, egiaztatuko da ea saridunek egunean dituzten euren zerga-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak. Halaber, egiaztatuko du ez direla zordun dirulaguntza itzuli behar dutela-eta.

Aurrekoak egiaztatu ondoren, ikusten bada saridunen batek ez duela betetzen betebeharrak horietakoren bat, errekerimendua egingo zaio 10 eguneko epean egoera hori konpon dezan, eta ohartaraziko zaio egoera konpondu ezean galdu egingo duela saria kobratzeko eskubidea.

**15. oinarria. — Borondatezko itzulketa**

1. Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan xedatutakoaren arabera (dekretu horren bidez, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duen Diru-laguntzen Erregelamendua onesten da), saridunak bere ekimenez itzuli ahal izango du Bizkaiko Foru Aldundiak emandako saria, foru erakundeak aurretik errekerimendurik egin gabe.

Halakoetan, diru-laguntza benetan itzultzen den arte sortutako berandutze-interesak kalkulatu dituzte Bizkaiko Foru Aldundiak, aipatutako 76. artikuluan eta 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

2. Saria saridunak berak eskatuta itzultzeko, ordainketa-gutun bat erabili behar da. Ordainketa-gutun hori Kultura Ondarearen Zerbitzuko bulegoetan izapidetuko da, saridunak eskaera egin ondoren. Ordainketa-gutun horretan, honako hauek adierazi behar dira: itzuli beharreko zenbatekoa (printzipala eta berandutze-interesak), ereduaren kopia eta diru-sarreraren zergatia, itzuli behar den sariari erreferentzia eginda.

3. Finantza-erakunde batean zenbatekoaren sarrera egin ondoren, saridunak ordainketaren kopia edo diru-sarreraren frogagiria bidali beharko dio sariaren kudeaketaz arduratzen den Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultura Ondarearen-zerbitzuari.

16. oinarria. — Jabetza intelektuala

Saria ordaintzen denetik aurrera, hurrengo bost urteetan Bizkaiko Foru Aldundiak bakarrik izango ditu saritutako lanak erreproduzitu, banatu eta saltzeko eskubideak, eta sariaz aparte ez du beste ordainketarik egin beharko, saria baita ordainsari osoa eta bakarra.

17. oinarria. — Saridunen betebeharrak

1. Saridunek eurek joan behar dute sariak banatzeko ekitaldira, horretarako adierazten zaien toki, egun eta orduan, eta ezingo balu joan, berriz, ordezkari bat bidali beharko luke. Gainera, saria jaso duen kontakizuna euskarri informatikoan eman behar dute.

2. Editatutako material guztietan eta diru-laguntza jaso ondoren egindako jendaurreko agerpen guztietan Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa agerraraztea. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-irudiak ezarritako elementuak baliatuko dira nahitaez, eta logotipoaren aldamenean esaldi hau agertuko da hitzez hitz:

«Ekintza honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du»

edo

«Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza/Actividad subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia».

3. Nolanahi ere, saridunak beti bete beharko ditu Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan zehazten diren betebeharrak, bai eta foru arau hori garatzeko erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuan zehazten diren gainerakoak ere.

18. oinarria. — Itzulketa

Jasotako saria eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dira, baldin eta ez badira betetzen aurreko oinarrietan, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo foru arau hori garatzen duen Erregelamenduan jasotako betebeharratariko bat edo batzuk.

19. oinarria. — Aurrekontuko partida

Foru Dekretu honetan araututako sarien zenbatekoa lau mila (4.000,00) euro da, guztira; diru-kopuru hori honako aurrekontu-partida honi egotziko zaio: 0404 G/332101/46200 aurrekontu-partida, 2011/0033 proiektua, 2020ko ekitaldia.

Eskaera guztiak ebatzi ondoren, diru-laguntzetarako guztira emandako diru kopurua aurrekontu-muga baino txikiagoa balitz, gastu-baimena deuseztatzea tramitatuko litzateke, soberan den zenbatekoan.



AZKEN XEDAPENAK

Lehen Azken Xedapena. — *Ahalmena ematea*

Ahalmena ematen zaio Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari, Foru Dekretu honetan xedatutakoa ondoen garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarren Azken Xedapena. — *Indarrean jartzea*

Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2020ko ekainaren 23an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ



Servicio de Patrimonio Cultural Kutura Ondarearen Zerbitzua BIZKAIDATZ XII. LITERATURA SARIA ESTA HISTORIA LA ESCRIBES TÚ JARRAITZEKO PREST? ORAIN ZURE TXANDA DA		I. Inprimakia/ Formulario Literatura-sarian parte hartzeko eskabidea Solicitud para participar en la convocatoria del premio literario BFAren 60/2020 FD DF de DFB 60/2020		BI-1 Data / Fecha Erregistro zk./ Nº de registro		 Bizkaia foru aldundia diputación foral
KONTAKIZUNAREN ESKATZAILE -EGILEAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA SOLICITANTE AUTORA DEL RELATO						
IFZ / NIF		Deiturak eta izena / Apellidos y nombre				
Sexua / Sexo ☐ Gizona / Hombre ☐ Emakumea / Mujer		Helbidea (kalea, plaza...) / Domicilio (calle, plaza, etc.)				
Etxe zk. / N.º casa		Solairua / Piso		Atea / Puerta		Udalerrria / Municipio
Lurraldea / Territorio		Telefonoa / Teléfono		Sakelakoa / Móvil		
Posta elektronikoa / Correo electrónico						
Jaiolekua / Lugar de nacimiento				Jaioguna / Fecha de nacimiento		
ADINGABEKO ESKATZAILAREN ORDEZKARI LEGALAREN DATUAK / DATOS REPRESENTANTE LEGAL EN CASO DE SOLICITANTE MENOR DE EDAD						
IFZ / NIF		Deiturak eta izena / Apellidos y nombre				
Eskatzailearekin harremana / Relación con la persona solicitante						
Telefonoa / Teléfono		Sakelakoa / Móvil		Posta elektronikoa / Correo electrónico		
KONTAKIZUNAREN DATUAK / DATOS DEL RELATO Eskabide-orri bat bete aurkeztutako kontakizun bakoitzeko / Rellenar una hoja-solicitud por cada relato presentado.						
Modalitatea Modalidad		Kontakizunaren Izenburua Título del relato				
☐ Euskara ☐ Castellano						
ERANTSITAKO DOKUMENTAZIO OROKORRA / DOCUMENTACIÓN GENERAL ADJUNTADA (Dekretuaren 6. onarria / Base 6 del Decreto)						
☐ Eskaera sinatzen duenaren eta, hala badagokio, legeko ordezkariaren NANaren fotokopia. <i>Fotocopia del DNI del firmante de la solicitud y en su caso del representante legal.</i>						
☐ Idatzizko kontakizunaren lau kopia. <i>Cuatro copias del relato escrito.</i>						
☐ Gaztelaniazko kontakizunen modalitatean parte hartzen duten pertsonak, Bizkaian jaio ez badira, dagokion errolda-ziurtagiria aurkeztu beharko dute. <i>Las personas autoras participantes en la modalidad de relato en castellano que no hayan nacido en Bizkaia deberán aportar el certificado de empadronamiento correspondiente.</i>						
☐ Bizkaitik kanpo erroldatuta dauden pertsonen kasuan, zerga egoitza duten lurrandean, zerga obligazioak beteta dituztela egiaztatzeko agiriak. <i>Para las personas empadronadas fuera de Bizkaia, certificados acreditativos de estar al día en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias allí donde tengan su residencia fiscal.</i>						
☐ Eskaera egiten duen adingabearen legeko ordezkari-tza egiaztatzeko dokumentazioa. <i>Documentación acreditativa de la representación legal de personas menores de edad solicitantes.</i>						

**DIRU-LAGUNTZA ONARTZEKO SINADURA ETA BALDINTZAK / FIRMA Y CONDICIONES DE ACEPTACIÓN**

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Foru Sailak Bizkaiko Lurralde Historikoan errolatuta dauden Ogasunaren egiaztagirak eskatuko ditu, eta eskatzaile guztien Gizarte Segurantzarenak, Diru-laguntzei buruzko 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 21.3 artikuluan ezarritako ondorioetarako, salbu eta interesdunak horren kontra dagoela adierazi badu, hori guztia 39/2015 Legearen 28.2 artikulua babesean.

El Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia recabará los certificados de Hacienda de quienes se encuentren empadronados en el Territorio Histórico de Bizkaia y los de Seguridad Social de todas las personas solicitantes, a los efectos previstos en el artículo 21.3 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, General de Subvenciones, salvo que la persona interesada se opusiere a ello, y todo ello al amparo del artículo 28.2 de la Ley 39/2015.

☐ Eskatzaileak adierazten du ez dagoela onuraduna izateko ezein debekutan sartuta. Debeku horiek maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12. artikuluko 2. eta 3. puntuetan daude zehaztuta.

☐ *La persona solicitante declara no estar incurso en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria, señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.*

☐ Eskatzaileak adierazi du ez duela zehapen irmorik izan administrazio-bidean, lan-arloan edo zigor-arloan, berdintasunerako eskubidea eta sexu-diskriminaziorik eza urratzeagatik, eta betetzen dituela Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan berdintasunari buruz ezarritako betebeharrak.

☐ *La solicitante declara que no ha sido sancionada en firme en vía administrativa, laboral o penal por vulneración del derecho a la igualdad y a la no discriminación por razón de sexo, así como que cumple con las obligaciones establecidas en materia de igualdad en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.*

Eskatzaileak adierazten du "ESTA HISTORIA LA ESCRIBES TÚ/ JARRAITZEKO PREST? ORAIN ZURE TXANDA DA" leloa duen BIZKAIDATZ. literatura sarian parte hartu nahi duela, aurkeztutako kontakizunarekin.

La persona solicitante expresa que desea participar en la convocatoria del Premio literario BIZKAIDATZ "ESTA HISTORIA LA ESCRIBES TÚ/ JARRAITZEKO PREST? ORAIN ZURE TXANDA DA", con el relato presentado.

Bilbon, ... (e)ko **(a)**(r)en ... (e)(a)n.*Bilbao, a ... de de ...*Eskatzailearen sinadura /
Firma solicitanteAdingabeen kasuan: / En caso solicitantes menores de edad:
Legezko ordezkariaren sinadura / Firma del representante legal



DATUAK BABESTEKO INFORMAZIOA	
(DATU PERTSONALEN BABESTEARI BURUZKO 2016/679 ERREGELAMENDUA [EB])/ 3/2018 L. O. DATU PERTSONALEN BABESARI ETA ESKUBIDE DIGITALEN BERMEA)	
INFORMACIÓN SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS	
(REGLAMENTO (UE) 2016/679 DE PROTECCIÓN DE DATOS) y LOPD Y GARANTÍA DE DERECHOS DIGITALES 3/2018	
Tratamenduaren arduraduna eta kontaktazeko	Responsable del tratamiento y contacto
Kultura Zuzendaritza Nagusia Rekalde zumarkalea, 30, 2., 48009-Bilbao	Dirección General de Cultura Calle Alameda Recalde, 30, 2.º, 48009-Bilbao
Tratamenduaren helburua	Finalidad del tratamiento
Tratamendu honen helburua da, interesdunek foru dekretu hau jarraituz aurkeztutako eskaerak kudeatzea.	La finalidad del tratamiento es gestionar las solicitudes presentadas al amparo de este Decreto Foral.
Interesdunaren eskubideak	Derechos de la persona interesada
Interesdunak aukera izango du bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko edo haien tratamenduari mugak jartzeko eta tratamenduaren aurka egiteko. Horretarako, idazki bat aurkeztu beharko du, <u>Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalari</u> zuzenduta. Leku hauetan aurkez daiteke idazkia: • Bizkaiko Foru Aldundiaren Erregistro Nagusia. (Erregistroa eta Herritarreganako Laguntza Bideratzeko Bulegoa, Laguntza: Diputazio kalea, 7, 48009-Bilbo) • Bizkaiko Foru Aldundiaren herritarrei laguntzeko eskualde-bulegoak • Bizkaiko Foru Aldundiko sailetako erregistro nagusiak • 39/2015 Legean aurreikusitako tokiak Horrez gainera, interesdunak eskubidea du kontrol-agintaritzari erreklamazioa jartzeko (hau da, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari).	La persona interesada podrá acceder a sus datos, solicitar su rectificación, su supresión o la limitación de su tratamiento, y oponerse a este presentando un escrito dirigido a la <u>«Sección de Asesoramiento Jurídico, Seguridad de la Información y Protección de Datos»</u> en: • Registro Central de la Diputación Foral de Bizkaia (Oficina de Registro y Atención Ciudadana Laguntza: Calle Diputación, 7, 48008-Bilbao) • Oficinas Comarcales de Atención Ciudadana de la Diputación Foral de Bizkaia • Registros Generales Departamentales de la Diputación Foral de Bizkaia • Lugares previstos en la Ley 39/2015 La persona interesada dispone igualmente del derecho a reclamar ante la autoridad de control pertinente (Agencia Vasca de Protección de Datos).
Datuak Babesteko ordezkaria kontaktu datuak	Contacto de la persona delegada de Protección de Datos
Lege Aholkularitza, Informazio Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalaren Burua (Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila). Kale Nagusia, 25, 48009-Bilbo	Jefatura de la Sección de Asesoramiento Jurídico, Seguridad de la Información y Protección de Datos (Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales). Gran Vía, 25, 48009-Bilbao
Tratamenduaren legitimazioa	Legitimación del tratamiento
27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia-Elkarte osorako Erakundeen eta bertako Kondairallurraldeetako foruzko ihardutzearakundeen arteko harremanei buruzkoa. 7.a.12 artikulua.	Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones comunes de la Comunidad Autónoma y los órganos forales de sus Territorios Históricos. Artículo 7.a.12.



DATUAK BABESTEKO INFORMAZIOA (DATU PERTSONALEN BABESTEARI BURUZKO 2016/679 ERREGELAMENDUA [EB]) / 3/2018 L. O. DATU PERTSONALEN BABESARI ETA ESKUBIDE DIGITALEN BERMEA) INFORMACIÓN SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS (REGLAMENTO (UE) 2016/679 DE PROTECCIÓN DE DATOS) y LOPD Y GARANTÍA DE DERECHOS DIGITALES 3/2018		
Datuen hartzaileak	Personas destinatarias de los datos	
Datu pertsonalak ez zaie hirugarrenei lagako.	Los datos personales no serán cedidos a terceros.	
Datuak gordetzeko epea	Conservación de los datos	
Datu pertsonalak tratatzeko beharrezko denbora.	Tiempo necesario para los fines del tratamiento de los datos personales.	
Interesdunen kategorien deskribapena	Descripción de las categorías de personas	
Eskatzaileak eta, hala badagokio, legezko ordezkariak	Solicitantes y representantes legales, en su caso	
Segurtasuneko neurri tekniko eta antolakuntzako neurrien deskribapen orokorra	Descripción general de las medidas técnicas y organizativas de seguridad	
Informazio-sistemak kategorizatzea eta segurtasuneko neurriak ezartzea, Administrazio Elektronikoaren esparruan Segurtasuneko Eskema Nazionala arautzen duen 3/2010 Errege Dekretuak xedatutakoari jarraiki.	Categorización de sistemas de información y aplicación de medidas de seguridad de acuerdo al Real Decreto 3/2010, del Esquema Nacional de Seguridad en el ámbito de la Administración Electrónica.	



Banka Helbideraketaren fitxa / Ficha de domiciliación bancaria	IV. Inprimakia / Formulario IV	E5	 foru aldundia diputación foral
		Data / Fecha	
		Erregistro zk./ Nº de registro	

Hartzekodunak bete beharreko datuak / Datos a cumplimentar por la parte acreedora			
Izena eta abizen bi edo sozietatearen izena / Nombre y dos apellidos o Razón Social			
Helbidea / Domicilio			
Herria / Población		Probintzia / Provincia	
NAN - IFZ / DNI - NIF		PK / CP	
Telefona / Teléfono		Faxa / Fax	
e-mail			
(tokia / lugar) (urtea / año) (hila / mes) (eguna / día)			
n, 20 (e)ko k			
Hartzekodun edo ahalduaren sinadura, / Firma de la parte acreedora o apoderada,			
Banka helbideratzeak / Domiciliaciones bancarias			
1	Jarraian aipatuko den kontua badagoela ziurtatzen dugu, eta titularrak goian adierazitakoa dela. Certificamos la existencia de la cuenta a continuación referenciada, cuyo titular es la arriba indicada.		
Helbideratu nahi duzun finantza erakundearen izena: Nombre de la entidad financiera en la que desea domiciliar:			
BIC		IBAN kodea / Código IBAN	
Herria / Población		Probintzia / Provincia	
PK / CP			
(tokia / lugar) (urtea / año) (hila / mes) (eguna / día)			
n, 20 (e)ko k			
Sinadura eta banketxearen zigilua, / Firma y sello de la entidad bancaria,			

DATUAK BABESTEKO INFORMAZIOA (DATU PERTSONALEN BABESTEARI BURUZKO 2016/679 ERREGLAMENDUA [EB])	INFORMACIÓN SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS (REGLAMENTO (UE) 2016/679 DE PROTECCIÓN DE DATOS)
<u>Tratamenduaren arduraduna:</u> Finantza, Aurrekontu eta Ondarearen Ogasuneko zuzendari nagusia.	<u>Responsable del tratamiento:</u> Director general de Finanzas, Presupuestos y Patrimonio.
<u>Tratamenduaren Arduraduna kontaktatzeko:</u> Basurtuko Kaputxinoen Bidea, 2. Zk.a, 48013 Bilbao.	<u>Contacto del responsable del tratamiento:</u> Calle Capuchinos de Basurto, 2 48013 Bilbao.
<u>Datuak Babesteko ordezkaria kontaktu datuak:</u> Lege Aholkularitza, Informazio Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atala-Kale Nagusia, 25, 48009-Bilbao.	<u>Contacto de la persona delegada de Protección de Datos:</u> Sección de Asesoramiento Jurídico de la Información y Protección de Datos – Gran Vía, 25, 48009-Bilbao.
* e-mail: dpo@bizkaia.eus	* e-mail: dpo@bizkaia.eus
<u>Tratamenduaren helburua:</u> Ordainketen aplikazioa, Bizkaiko Foru Aldundiko Jarduera multzoak bere ordainketa-betebeharrak betetzearen inguruan ulertzea.	<u>Finalidad del tratamiento:</u> La aplicación de los pagos, entendiendo por tal el conjunto de actividades de la Diputación Foral de Bizkaia relacionadas con el cumplimiento de sus obligaciones de pago.
<u>Tratamenduaren legitimazioa:</u> Ordainketa-betebeharrak kudeatzeko eta kontrolatzeko interesa publikoaren egitekoa.	<u>Legitimación del tratamiento:</u> Misión realizada en interés público para la gestión y control de las obligaciones de pago.
<u>Datuen hartzaileak:</u> Datu pertsonalak foru-aginduei, Bilboko Markataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganberari, Eusko Jaurilaritzako sailei, Gizarte Segurantzaren Diruziantza Nagusiari, udalei eta veste herri administrazio batzuei utzi ahal izango zaizkia, Bizkaiko Lurralde Historikoko ZFAOen ezarritakoaren arabera.	<u>Destinatarios de los datos:</u> Los datos personales podrán ser cedidos a Diputaciones Forales, Cámaras de Comercio, Industria, servicios y Navegación de Bilbao; Departamentos del Gobierno Vasco, Tesorería General de la Seguridad Social, Ayuntamientos y otras administraciones públicas, de acuerdo con lo establecido en la NFGT del THB.
<u>Datuak gordetzeko epea:</u> Datu pertsonalak tratatzeko xedea betetzeko behar dena.	<u>Conservación de los datos:</u> Tiempo necesario para los fines del tratamiento de los datos personales.
<u>Interesadunen eskubideak:</u> interesadunak bere datuak atzitu ahal izango ditu; eskatu datuak zuzentzea, ezabatzea edo haien tratamendua murriztea; edo datuen tratamenduari aurka egin. Eskubideak erabiltzeko, idazki bat bidaliko dio tratamenduaren arduradunari, 39/1015 Legeak, urriaren 1ekoak.	<u>Derechos de la persona interesada:</u> La persona interesada podrá acceder a sus datos; solicitar su rectificación, su supresión o la limitación de su tratamiento; y oponerse a este. Para ejercerlos, enviará un escrito a la persona responsable del tratamiento a través de cualquiera de las formas establecidas en el art. 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.